



ESKALADA JASANGARRIA GIPUZKOAN ESCALADA SOSTENIBLE EN GIPUZKOA

Jardunbide
egokien dekalogoia

Decálogo de buenas
prácticas

 **kutxa**
FUNTSIA



GIPIZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA
Federación Guipuzcoana de Montaña

Elaboración:
Eduardo Alzola
Ilustración:
Eduardo Alzola



**ETORKIZUNA
OAIN**
LITURIA

ESKALADA JASANGARRIA GIPUZKOAN

ESCALADA SOSTENIBLE EN GIPUZKOA

Gipuzkoako eta kanpoko eskalataile askok probintziako harkaitzak erabiltzen ditugu maite dugun kirola praktikatzeko. Gure jokalekua ingurune naturalean dago, eta, ondorioz, fauna- eta flora-espezieekin batera bizi gara. Interes geologikoa duten lekuetan jarduten gara, baita balio kultural handiko arkeologia-aztarnategiak dituzten zonaldeetan ere. Gure betebeharra da hori guztia errespetatzea. Horretaz gain, ez dugu ahaztu behar landa-ingurunea pertsona askoren lantokia eta bizilekua dela, eta, beraz, bizikidetzarako oinarritzko arau batzuk errespetatu behar ditugu.

Ingurumena errespetatzen duen eskalada sustatu behar dugu, epe luzera gozatu ahal izateko. Gozatu naturaz honako aholku hauei jarraituz:

Muchos escaladores de Gipuzkoa y foráneos, utilizamos los roquedos de la provincia para practicar el deporte que tanto amamos. Nuestro terreno de juego se encuentra en el medio natural y en consecuencia convivimos con especies de fauna y flora; o accedemos a lugares de interés geológico; incluso hay zonas que albergan yacimientos arqueológicos de gran valor cultural. Es nuestra obligación ser muy respetuosos con todo ello. Sin olvidar que, el medio rural es un ámbito donde trabajan y viven muchas personas y por lo tanto debemos respetar unas normas básicas de convivencia.

Debemos fomentar la actividad de la escalada respetuosa con el medio ambiente para poder disfrutarla a largo plazo. Disfruta de la naturaleza siguiendo los siguientes consejos:

1 SARBIDEAK: JOAN-ETORRIAK, HURBILTzea ETA JAISTEA

Erabili ahal duzun guztietan garraio publikoa eskalada-guneetara joateko. Autoz joan behar baduzu, saiatu autoa partekatzen, behar bezala aparkatzen eta pistetan ez ibiltzen. Hormara hurbiltzeko, erabili bidexkak edo bide nagusiak. Lasterbideek lurra hondatzen eta jatorrizko bidea higatzen dute. Hainbat luzetako bideetan, erabili jaisteko dagoen bidea, eta ekidin bidezidor edo lasterbideak; horrela, higadura-inpaktua txikituko duzu.



1 LOS ACCESOS: DESPLAZAMIENTO, APROXIMACIÓN Y DESCENSO

Utiliza siempre que puedas el transporte público para acceder a las zonas de escalada. En el caso de que tengas que ir en coche, intenta compartir las plazas, aparcar adecuadamente y no circular por pistas. Para la aproximación a la pared, utiliza las sendas o caminos principales. Los atajos deterioran el suelo y erosionan el sendero original. En vías de varios largos, utiliza en tus descensos el sendero existente sin utilizar atajos, de esta manera evitarás un mayor impacto erosivo.

2 BEHARRIZAN FISIOLÓGIKOAK

Saiatu etxetik ateratzen zure behar fisiologikoak asetuta. Eskalada-gune batean egin behar baduzu, bilatu hormatik eta ur-iturrietatik urrun dagoen leku bat. Egin 15 zm inguruko zulo bat, lurperatu gorozkiak eta ez bota bertan komune-ko papera; bildu eta bota edukiontzi batean. Oso arriskutsua da komune-ko papera erretzea.



2 LAS NECESIDADES FISIOLÓGICAS

Intenta salir de casa aliviado de tus necesidades fisiológicas. Si necesitas hacerlo en una zona de escalada, busca un lugar alejado de la pared y de fuentes de agua. Cava un hoyo de unos 15 cm. Entierra las heces y llévate el papel higiénico para tirarlo en un contenedor. Quemar el papel higiénico es muy peligroso.

3 SEN ONA

Ez egin oihu, ez bada soka-kidearekin komunikatzeko. Kutsadura akustikoak tokiko faunaren bizitza aldatzen du; beraz, ekidin musika altuko aparatu oro. Eraman txakurrak lotuta, aziendari enbarazurik ez egiteko. Itxi langak itxituretatik igarotzean, eta errespetatu artzainen bizimodua. Ez jaso fruiturik zuhaitzetatik jabearen baimenik gabe. Erabili sen ona.

haraaa!!
kar, kar, kar!!
txuutt!!



3 EL SENTIDO COMÚN

No grites si no es para comunicarte con el compañero o la compañera de cordada. La contaminación acústica altera la vida de la fauna local, por lo tanto, evita todo tipo de aparato con música alta. Lleva los perros atados, para evitar molestias al ganado y cierra las cancelas al pasar, respeta el medio de vida de los pastores. No recojas frutos de los árboles sin autorización de la persona propietaria. Utiliza el sentido común.

4 NATURA AHALIK ETA GEHIEN ZAINTEA

Ez utzi zaborrik, ez piztu surik, ez bota zigarrokinik eta ez kanpatu zure kontura. Amaiztean, garbitu heldulekuen markak eta magnesioa. Eskaladagunetik alde egiten duzunean, jaso plastiko, botila, lata edo zaborren bat gutxienez. Zaindu ur-iturriak eta -korronteak.

Izan eragin positiboa!



4 EL MÁXIMO CUIDADO DE LA NATURALEZA

No dejes basura, ni enciendas fogatas, ni tires colillas y no acampes por tu cuenta. Cuando abandones la zona de escalada recoge al menos algún plástico, botella, lata o desperdicio que veas. Cuida las fuentes y corrientes de agua. ¡Impacta positivamente!

5 MATERIALAK

Materiala erosten duzunean, lagundu zure erosketarekin ingurumena eta langileak babesteko konpromiso handiena hartzen duten enpresei. Zure sokaren, zinten, mosketoien eta abarren balio-bizitza amaitzen denean, birziklatu ezazu materiala; marka batzuek jaso egiten dituzte. Magnesioa erabiltzen baduzu, erabili, ahal dela, likidoa: higienikoagoa eta garbiagoa da.



5 LOS MATERIALES

Cuando adquieras material, apoya con tu compra a las empresas que más se comprometen con la protección del medio ambiente y de sus trabajadores. Cuando acabe la vida útil de tu cuerda, cintas, mosquetones, etc. recicla el material, hay marcas que los recogen. Si utilizas magnesio, usa preferentemente el líquido, es más higiénico y limpio.

6 BIODIBERTSITATEA

Eskalada-gune bakoitzeko florak eta faunak bertako biodibertsitate berezia osatzen dute. Informa zaitetz eskalatzen duzun lekuko espezie mehatxatuen eta habiak egiteko garaien inguruan. Urtariletik uztaiera, kontu handiz ibili behar duzu. Errespetatu arauak, eta, horman habia bat aurkituz gero, ez pasa gainetik, jaitsi ahalik eta lasterren zaratarik egin gabe, eta jakinarazi Gipuzkoako Mendizale Federazioari.



6 LA BIODIVERSIDAD

La flora y fauna de cada zona de escalada constituye su particular biodiversidad. Infórmate activamente de las especies más amenazadas del lugar donde escales y de las épocas de nidificación. Desde enero hasta julio has de extremar la precaución. Respeta las regulaciones y en caso de encontrar un nido en la pared no rebasarlo y bajar lo antes posible sin hacer ruido e informar a la Federación Guipuzcoana de Montaña.

7 GEODIBERTSITATEA

Eskalada-guneetan bizi diren faunak eta florak leku horietako biodibertsitatea osatzen duten bezala, haitzezko hormek ere geodibertsitatea osatzen dute; bien artean balio handiko natura-ondarea eratzen dute, kontserbatu beharrekoa. Eskalatzen ari zarenean, saiatu hormetatik harriak eta landareak ez kentzen, segurtasunagatik ez bada. Landare asko ingurunearentzat onuragarriak dira, eta animalientzat elikadura eta babesa izan daitezke.

7 LA GEODIVERSIDAD

Así como la fauna y la flora que vive en las zonas de escalada forman la biodiversidad de estos lugares, las propias paredes de roca componen la geodiversidad, constituyendo entre ambos un patrimonio natural de incalculable valor que es necesario conservar. Cuando estés escalando intenta no quitar piedras y plantas de las paredes, si no es por seguridad. Muchas plantas son beneficiosas para el medio y pueden suponer alimentación y resguardo para los animales.



8 AZTARNATEGI ARKEOLOGIKOAK

Gune harritsu batzuetan, batez ere haitzuloetan, kultur-ondarearen parte diren aztarnategi arkeologikoak daude. Ondare hori babestea administrazio publikoaren ardura da, eta, ondare hori zaintzen laguntzea, guztion betebeharra. Batzuetan debekuak egon daitezke bide edo sektore jakin batean eskalatzeko; informazio-plaka baten bidez jakinaraziko dira. Errespetatu eta eskalatu beste bide edo sektore batean.



8 LOS YACIMIENTOS ARQUEOLÓGICOS

En algunas zonas rocosas, principalmente cuevas, se encuentran yacimientos arqueológicos que forman parte del patrimonio cultural. La protección de este patrimonio es responsabilidad de la administración pública y colaborar en su conservación es deber de todos. En ocasiones podrán darse prohibiciones para escalar en una determinada vía o sector que se informarán mediante una placa informativa. Respétalas y escala en otra vía o sector.

9 BAIMENAK: EREMU BERRIAK

Oraindik eskalada egiten ez den gune berri batean bide bat ireki nahi baduzu, kontuan izan horma hori babestutako naturagune batean egon daitekeela, eta, beraz, baimena eskatu beharko diozula organo kudeatzaileari (Aldundia), Gipuzkoako Mendizale Federazioaren bitartez. Bestalde, gogoratu eremu hori dagoen lursaila jabetza bat dela (pribatua edo publikoa). Joan zaituz dagokion udaletxera, eta han jakinaraziko dizute norena den lursaila, baimena eskatzeko.



9 LOS PERMISOS: NUEVAS ZONAS

Si deseas abrir una vía en una nueva zona donde todavía no se practica la escalada, ten en cuenta que esa pared podría encontrarse dentro de un espacio natural protegido, por lo que se debe pedir permiso al órgano gestor (Diputación), a través de la Federación Guipuzcoana de Montaña. Por otra parte, el terreno donde se encuentra es una propiedad (privada o pública).

Dirígete al Ayuntamiento correspondiente donde te informarán a quién pertenece la parcela, para solicitar su autorización.

10 TOKIKO EKONOMIA

Lagundu landa-ekonomiak bultzatzen inguruko zerbitzuak erabiliz eta tokiko produktuak kontsumituz. Zerbitzurik behar baduzu, erabili tokian bertan eskaintzen direnak, eta kontsumitu herri eta auzo txikietako denda, taberna eta baserritarren saltokietan. Aparkalekuren batean edo kanpin libreko guneren batean bazaude, aprobetxatu inguruko tabernaren batean gosaltzeko. Tokiko negozioak sustatzeaz gain, naturari lagunduko diozu, komunak erabiliz.



10 LA ECONOMÍA LOCAL

Ayuda a impulsar las economías rurales utilizando los servicios de la zona y consumiendo productos locales. Si necesitas cualquier servicio, utiliza los que se ofrecen en el propio lugar, consume en tiendas, bares y puntos de venta de los baserritarras en los pueblos y pequeños barrios. Si estás instalado en algún aparcamiento o zona de camping libre, aprovecha para desayunar en alguna taberna de la zona. Además de promover los negocios locales, estarás ayudando a la naturaleza utilizando sus aseos.

Jasangarritasun eraginkorrena norberaren segurtasunetik hasten da. Nork bere burua babesteko neurriak zorroztu behar ditu. Zaindu zure burua eta zure ingurua. PRAKTIKATU ESALADA JASANGARRIA!

La sostenibilidad más eficiente empieza por la seguridad de uno mismo. Cada cual debe extremar las medidas de autoprotección. Cuidate tú y tu entorno. ¡PRACTICA LA ESCALADA SOSTENIBLE!

Informazio gehiago lortzeko, sartu gure webgunera:

- a) Eskalada jasangarria, oro har: <https://www.gmf.eus/Aurkezpena/lang/eusk/>
- b) STOP COVID19: <https://www.gmf.eus/STOP-COVID19/>

Para + información, consulta nuestra web:

- a) Escalada sostenible en general: <https://www.gmf.eus/Aurkezpena/lang/cast/>
- b) STOP COVID19: <https://www.gmf.eus/STOP-COVID19/>



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA
Federación Guipuzcoana de Montaña

Kirol Etxea - Anoeta Ibildea 5 - 20014 DONOSTIA

Tel: 943 461 440 • Email: gmf-administrazioa@kirolak.net



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA
Federación Guipuzcoana de Montaña

Jardunbide egokien dekalogo



Decálogo de buenas prácticas